

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

6944 *6/2021 Lege Organikoa, apirilaren 28koa, Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legea aldatzen duen apirilaren 28ko 6/2021 Legearen osagarria, zeinaren bidez aldatzen baitira Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa eta Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala.

HITZAURREA

Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legearen bidez, Erregistro Zibilaren eredu berri bat ezarri zen Espainian: Estatu osorako eredu bakarra, informatizatua eta sarbide elektronikoa duena. Eredu berri hori Estatuko lurralde osoan hedatzeko, Erregistro Zibilaren egungo antolaketa hartu da abiapuntutzat.

Beraz, eredu erregistrala, prozedurazkoa eta teknologikoa aldatu denez, uztailaren 1eko Botere Judizialaren 6/1985 Lege Organikoa egokitu beharra dago. Lege honetan, beraz, 6/1985 Lege Organikoa eredu berrira egokitzeko gutxienezko lege-aurreikuspenak berrikusten dira. Bi artikuluko legeak. Lehenengoak Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzen du; bigarrenak, berriz, Zigor Kodea aldatzen du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko urriaren 23ko (EB) 2018/1673 Zuzentarauaren transposizioa osatzeko (zuzenbide penalaren bidez kapitalak zuritzearen aurka borrokatzeari buruzkoa da zuzentarau hori).

Lehenengo artikuluen xedea da zehaztea ezen Erregistro Zibilaren Bulegoa, zeina Erregistro Zibila eramateaz arduratuko baita, Justizia Ministerioaren barruan egongo dela eginkizunei dagokienez, eta Justizia Administrazioaren antolaketaren barruan, gerentziari dagokionez. Erregistro Zibilaren Bulegoa eta bulego judiziala ez dira gauza bera.

Era berean, kontuan hartu behar da eredu berri honetan, zerbitzu aktiboan dauden Justizia Administrazioaren letraduak izango direla Erregistro Zibilaren arduradun. Horregatik, Justizia Administrazioaren letraduak Erregistro Zibilaren arduradun izendatutakoan zerbitzu bereziko administrazio-egoerara igartzeko aukera ezabatu behar da Lege Organikoaren 445.1 artikulutik. Beraz, Justizia Administrazioaren letraduaren figurak arduradun jardutearen alde egiten da, argi eta garbi; izan ere, goi-mailako kidego juridiko horrek esperientzia egiaztatua du aipatutako arloan.

Azkenik, Erregistro Zibilaren Bulego berria Justizia Administrazioaren eremuan txertatu denez, beste bi manu egokitzen dira, segurtasun juridiko handiagoa emateko Justizia Administrazioaren kidego orokorreko langileek bakarrik lanpostuak betetzeari dagokionez.

Bigarren artikuluen helburua da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko urriaren 23ko (EB) 2018/1673 Zuzentzaraua, zuzenbide penalaren bidez kapitalak zuritzearen aurka borrokatzeari buruzkoa, Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzea guztiz.

Kapitalak zuritzearen delitua, gaur egun, Zigor Kodearen 301.etik 304.era bitarteko artikuluetan araututa dago, eta haren barruan sartzen dira delituzko jokabideen ondorioz eskuratutako ondasunak legezko trafiko ekonomikoan sartzea helburu duten jarduketak. Horiek horrela, zuzentarauaren transposizioa egiteko –hau da, haren edukia Espainiako barne-ordenamendura ekartzeko– gutxienezko esku-hartze bat egin beharko da arauetan,

Europako arauaren elementu nagusiak Espainiako arau penalean jasota daudelako dagoeneko.

Lehenengo eta behin, (EB) 2018/1673 Zuzentarauak, Europar Batasuneko estatuentzat nahitaezkoak diren astungarrien artean, orain arte Zigor Kodean jaso gabeko astungarri esplizitu bat txertatzen du, delituaren subjektu aktiboaren izaera bereziaren harira: «betebeharpeko subjektu» izatea. Kontzeptu horrek pertsona fisiko eta juridiko jakin batzuk hartzen ditu barnean, eta zuritzearen arloko Europako arau-sortak finkatzen du nor diren horiek. Hori guztia dela eta, zuritzearen subjektu aktibo izatearen ondoriozko kualifikazioa arautzean, hobekuntza tekniko bat egin da, tipoaren deskribapenak Europako arauan ezarritako kasu guztiak barnean har ditzan, eta, horrez gain, hizpide dugun delinkuentzia mota konplexu eta askotarikoari modu eraginkorrean aurre egiteko aukera eman dezan.

Bigarrenik, Europar Batasuneko estatuentzat aukerakoak diren astungarrien barruan, (EB) 2018/1673 Zuzentarauak gaitzespen penal handiagoa ezartzeko bidea ematen die estatu kideei baldin eta zuritzearen xede diren ondasunak delitu jakin batzuen ondorioz eskuratu badira. Mota horretako delituak dira, batetik, Espainiako Zigor Kodean aurreikusitakoak (hala nola droga toxikoak, sorgogorriak edo gai psicotropikoak trafikagari izatearekin zerikusia duten delituak, edo ustelkeriarekin bereziki lotuta daudenak), eta, bestetik, gizakien salerosketa delituak; atzerritarren eskubideen aurkako delituak; adingabeen prostituzioari, sexu-esplotazioari eta galbideratzeari buruzko delituak eta ustelkeria-delituak negoziotan. Dagoeneko arautu denarekin bat etorritik, erreformak aipatutako tipo astunduak ezartzea dakar, zehapen penalak eraginkorragoak, proportzionalagoak eta disuasiozkoagoak direlakoan aurretiko delitua azaldutakoa bezain astuna den kasuetan.

Lehenengo artikulua. *Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzea.*

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan, artikulua bat gehitzen da, 439 bis artikulua, eta, horrez gain, 445., 520. eta 522. artikulua aldatzen dira. Honela geratzen dira idatzita artikulua horiek:

Bat. 439 bis artikulua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«439 bis artikulua.

Lege honen ondorioetarako, Erregistro Zibilaren Bulegoa unitate bat da, bulego judizialean integratuta ez badago ere Justizia Administrazioaren antolaketaren eremuan eratzen dena, aipatutako zerbitzu publikoa eramateaz arduratzeko, Erregistro Zibilaren Legean eta Erregistro Zibilaren Erregelamenduan ezarritakoaren arabera; zeregin hori betetzeko, Justizia Ministerioari lotzen zaio funtzionalki, Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez.

Bake-epaitegiei zuzeneko laguntza emateko idazkaritzek eta bulego judizialek Erregistro Zibilaren arloan lagunduko dute, Erregistro Zibilaren Legean eta hura garatzeko erregelamenduan zehaztutakoarekin bat.

Erregistro Zibilaren bulego horietako lanpostuak betetzeko, Justizia Administrazioari langileak hartuko dira, eta pertsona horiek kasuan kasuko lanpostu-zerrendetan ezarritako betekizunak eta baldintzak konplitu beharko dituzte. Zer lanpostu izango diren erabakitzea Justizia Ministerioari eta eskumenak berenganatuak dituzten autonomia-erkidegoei dagokie, zeini bere eremuan».

Bi. Aldatu egiten da 445. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«445. artikulua.

1. Justizia Administrazioaren letraduek izan ditzaketen egoera administratiboak, eta orobat erretiroa, lege organiko honetan epaile eta magistratuentzat ezarritako

berak izango dira; berdinak izango dira, orobat, egoera horiek guztiak deklaratzeko kasuak eta deklaratzearen efektuak.

Nolanahi ere, Europako Parlamentuan, Diputatuen Kongresuan, Senatuan, autonomia-erkidegoen legebiltzarretan edo toki-korporazioetan ordezkaritza-kargu publikoak betetzeko izangai diren Justizia Administrazioaren letraduak beren bulego judizialetan zerbitzu emateaz libra daitezke, aurrez eskatuz gero, hauteskundekampainak irauten duen bitartean. Justizia Administrazioako idazkari nagusiak eman dezake baimen hori.

2. Ezintasun, bateraezintasun eta debeku berak izango dituzte, 395. artikuluan aurreikusitakoak izan ezik».

Hiru. Aldatu egiten da 520. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«520. artikulua.

1. Liburu honen gai diren kidegoetako funtzionarioek bulego judizialen eta Erregistro Zibilaren bulegoen egiturako unitateetan izango dute lanpostua, eta, hala badagokio, 439. artikulua aipatzen dituen administrazio-unitateetan, auzitegi-medikuntzaren institutuarenetan, Toxikologia Institutuarenetan eta haien departamentuetakoetan.

2. Horretaz gainera, zerbitzuak eman ahal izango dituzte Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian, Konstituzio Auzitegian eta Kontu Auzitegian, konstituzio-organo horien zerbitzuko enplegatuen araudian aurreikusiriko moduan eta baldintzetan, eta orobat Mutualitate Orokor Judizialean, organismo publiko horren lanpostu-zerrendan ezarritako postuetan.

3. Beste administrazio publiko batzuetako lanpostuetan ere jardun ahal izango dute, haietako lanpostu-zerrendek espresuki hala aurreikusi badute. Postu horietan dirauten bitartean, destinoa duten administrazioko funtzio publikoaren legeria aplikatuko zaie, eta zerbitzu aktiboan izango dira sorburuko administrazioan».

Lau. Aldatu egiten da 522. artikulua 4. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Lege honen 439. eta 439 bis artikuluetan aipatzen diren administrazio-unitateetako eta Erregistro Zibilaren bulegoetako lanpostu-zerrendak prestatu eta onesteko, Justizia Ministerioa eta eskumenak berenganatuak dituzten autonomia-erkidegoak izango dira eskudun, bakoitza bere lurralde-eremuan».

Bigarren artikulua. *Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzea.*

Aldatu egiten da Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 301. artikulua 1. apartatuko azken paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«Zigorra goiko erdian ezarriko da, halaber, ondasunek jatorria dutenean VII bis tituluaren, VIII. tituluko V. kapituluaren, XIII. tituluko XI. kapituluaren 4. atalean, XV bis tituluaren, XVI. tituluko I. kapituluaren edo XIX. tituluko V., VI., VII., VIII., IX. eta X. kapituluaren azaldutako delitu batean».

Bi. Paragrafo bat gehitzen zaio 302. artikulua 1. apartatuari, bigarren paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«Zigorra goiko erdian ezarriko zaie, halaber, kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko araudiaren arabera betebeharreko subjektu izanik, lanbide-jardueran aritzearen ondorioz 301. artikuluan azaldutako jokabideak izaten dituztenei».

Azken xedapena. *Indarrear jartzea.*

Lege organiko hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrear.

Horrenbestez,
Lege organiko hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2021eko apirilaren 28an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN